



Ekintzen txostena 2021

• **EUROREGION**
EUROESKUALDEA
EUROREGION

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA



Aurkibidea

Sarrera 5

1
Euroeskualdearen finantzazio
tresnen hedapena 7

Euroeskualdeko hiritartasuna proiektu-deialdia 7

Abian diren proiektuak 7

Hautatutako proiektu berriak 8

Ezagutzaren ekonomia proiektu-deialdia 11

Abian diren proiektuak 11

Hautatutako proiektu berriak 13

Lankidetza estrategikoak 14

Abian diren lankidetzak 14

Lankidetza berriak 16

Euroeskualdeko beka 17

2
Abian diren europar proiektuak 19

TRANSFERMUGA-RREKIN 19

COMPET'Plus 20

Forma NAEN 22

3
Lurraldearen dinamizazioa eta ekitaldia 25

Mugaz gaindiko enplegua babestea 25

Euroeskualdeko ikus-entzunezko industria bultzatzea 25

Osasun krisira egokitzea 25

Ekitaldiak eta aurkezpenak 26

4
2021-2027 Plan Estrategikoa
batera eraikitzeko prozesua 29

5
Balantze finantzarioa 33



Sarrera

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen 2021-2027 Plan Estrategikoaren lanketara bideratu da 2021 urtea eta Donostian aurkeztu zen prozesu horren emaitza joan den urriaren 27an. Plana hiru lurraldeetarako bost ardatz nagusi eta 68 ekintza espezifiko biltzen dituen ibilbide-orria da.

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Plan Estrategiko berriari buruzko hausnarketa egiteko, Euroeskualdeko eragile eta herritar ugarik, hiru lurraldeetako administrazioetako funtsezko eragileek eta LLETek sustatutako mugaz gaindiko lankidetzaproiektuetako kideek parte hartu dute.

« ...Euroeskualdeko eragile eta herritar ugarik, [...] administrazioetako funtsezko eragileek eta [...] lankidetzaproiektuetako kideek parte hartu dute. »

Bestetik, jakina da osasun-krisia dela eta hainbat neurri hartu behar izan direla mugaren bi aldeetan 2021 ekitaldian eta LLETak murrizketa horiei buruzko informazio-gune gisa egindako lanak funtsezkoa izaten jarraitu du mugaz gaindiko herritarrentzat.

Horrez gain, abian jarritako Euroeskualdeko proiektuak garatuz joan dira urtean zehar, eta emaitza nabarmenak izan dituzte arlo guztietan.

2021. urteko jardueren txostenak honako puntu hauek lantzen ditu:

- Euroeskualdeko finantzazio tresnen hedapena;
- Abian diren europar proiektuak;
- Lurraldearen dinamizazioa eta ekitaldiak;
- 2021-2027 Plan Estrategikoa batera eraikitzeko prozesua;
- Balantze finantzarioa.



1

Euroeskualdearen finantzazio tresnen hedapena

Euroeskualdeko hiritartasuna proiektu-deialdia

Abian diren proiektuak

Aurreko urteetan hasitako proiektu batzuek argia ikusi dute 2021ean, eta hainbat ekimen garatu eta gauzatu ahal izan dira. Euroeskualdeak proiektu horien garapenean parte hartu du, eta horietako batzuk atal honetan azpimarratzen dira.

Ekitaldi honetan zehar, urte eta fase desberdinetan lagundutako proiektuak aurkeztu dira jendaurrean.

Nora, 2017tik babestutako proiektu zinematografikoa, zinema-aretoetan estreinatu da: aurreproduktzio-fasetik babestuta, Euroeskualdeak produktzio-etapan duen konpromisoa berretsi eta filmaren aldi bereko banaketan parte hartu du, mugaren bi aldeetan. Orain arte, 12.000 ikuslek baino gehiagok ikusi dute filma.

Ainarak, Zuberoara abarketak egitera zihoazen Aragoiko eta Nafarroako enarei buruzko proiektua, web dokumental batekin osatu da, eta bertan jasotako informazioa datozen hilabeteetan plazaratuko den dokumentalean erabiliko da.

Pandemiak atzeratu arren, **Matriochkak** proiektuak Bilboko Zinebi jaialdian aurkeztu ahal izan zuen bere filma, aurrestreinaldian.

Ikusi Mikusi haur eta gazte literaturaren jaialdiak Euroeskualdearen laguntza izan du bi urtez jarraian, eta bere lehen edizioa plazaratu du 2021ean. Ekitaldian, liburu bana jaso zuten 600 haur baino gehiagok parte hartu zuten.



Influx aldizkaria, 2018az geroztik lankidetzan landutakoa, hirugarren denboraldi bat ekoizteko prozesuan dago eta Akitania-Berrian France 3 katean, ETBn eta Kanalduden emango da.

Lanbide Heziketa elementu nagusia da Euroeskualdeko ekintzen artean: aurkeztutako proiektuei esker, bereziki **Gaztegurri** esker, Albaloko ikasleek euren jangela bat izango dute, euren kabuz, Nafarroako Donibane ikastetxearekin eta Angeluko (Akitania-Berria) ikaskideekin elkarlanean eraiki dutena.

Egin+ proiektuak oihartzun handia izan du lurraldean, eta ehunka gazte bildu ditu ingurumen-arazoei aurre egiteko eta antolatutako ekitaldiei esker aurrerapausoak eman dira berrikuntza positiboaren eta konponbideak bilatzearan inguruan (*Planetaren aldeko 24 orduko Berrikuntza, Planetaren aldeko Berrikuntza Hitzordua, Afrika Euskal Erronka eta Desafioak*).

Hautatutako proiektu berriak

Euroeskualdeko hiritartasuna izeneko proiektu-deialdiaren 2021. edizioan, Euroeskualdeak 22 proiektu hautatu ditu, guztira 500.652€ zenbatekoarekin. 49 proiektu aurkeztu dira deialdira, eta horrek erakusten du deialdiak gero eta garrantzi handiagoa duela lurraldearentzat.

Honela banatu dira hautatutako proiektuak:

- 8 proiektu Kultura sektorean;
- 7 proiektu Hezkuntza/Gazteria sektorean;
- 4 proiektu Eleaniztasuna sektorean;
- 3 proiektu Kirol sektorean.

AZPI-EREMUA	PROIEKTUA	KIDEAK	LABURPENA	DIRU-LAGUNTZA / AURREKONTUA GUZTIRA
KULTURA				
ARTE GARAIDEA	CAYOLAR	TRAME elkarte <i>Oloron-Ste-Marie, NoA</i> Muturbeltz <i>Karrantza, Euskadi</i> Larungo Kayola SL <i>Bera, Nafarroa</i>	Artista garaikideen mugaz gaindiko urteko egoitza-proiektua, «Habitatu» gaiaren inguruan esperientzia komuna duen diziplina anitzeko talde eklektiko bat biltzen duena.	Diru-Laguntza 15.453€ Aurrekontua guztira 58.400€
IKUS ENTZUNEZKOAK	BLACK IS BELTZA	BIBA Ainhua AIE <i>Irun, Euskadi</i> Katakrak <i>Pamplona, Nafarroa</i> Gastibeltza <i>St-Pée-sur-Nivelle, NoA</i>	Black IS BELTZA II: AINHOA animaziozko filmaren ahotsak grabatzeko fasea. Fermin Muguruzak zuzendutako filmaren lehen zatia Netflixen estreinatu da.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 60.000€
	ZINEMA ZUBIAK	Zukugailua <i>Bidarray, NoA</i> NAPAR <i>Pamplona, Nafarroa</i> IBAIA <i>Donostia, Euskadi</i>	Urtean zehar jaialdien esparruan egiten diren topaketa erregularren bidez, proiektuak ikus-entzunezko eta zinemako sorkuntza bultzatu nahi du mugaren bi aldeetan.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 66.900€
	MIRA	Le Nouveau Studio <i>Juillac, NoA</i> 601 Producciones <i>Tajonar, Nafarroa</i> Maluta Films <i>Donostia, Euskadi</i> Prismédia <i>Gujan-Mestras, NoA</i> TV7 <i>Bordeaux, NoA</i>	26 minutuko Euroeskualdeko ikus-entzunezko aldizkari bat, landa-eremuen bizitasun artistiko eta kulturalaren berri ematen duena hiru lurraldeetako hiru hizkuntzetan: frantsesa, euskara eta gaztelania.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 60.000€
DANTZA	ATALAK	Dantzaz elkarte <i>Renteria, Euskadi</i> Malandain Ballet <i>Biarritz, NoA</i> Fundacion Baluarte <i>Pamplona, Nafarroa</i>	ATALAK sareak sorkuntza koreografiko garaikidea sustatzea du helburu, lau laborategi esperimentalen eta ekoizpen koreografikoko egoitza baten bidez.	Diru-Laguntza 25.500€ Aurrekontua guztira 118.079€
MUSIKA	URMUGA	Urmuga kultur elkarte <i>Abadiño, Euskadi</i> Basaiea <i>Baigorri, NoA</i> Beiegu engineering SL <i>Aizoaín, Nafarroa</i>	Mendiko bira musikal honen bigarren edizioa, naturaz inguratuta eskainitako 12 kontzerturekin.	Diru-Laguntza 25.500€ Aurrekontua guztira 215.000€
		Fundacion Finnova <i>Gasteiz, Euskadi</i> Haceria Arteak <i>Bilbo, Euskadi</i> Sala Totem <i>Villaba, Nafarroa</i> Rocher de Palmer <i>Cenon, NoA</i>	Musikaren industrian, Euroeskualdeko musika-sorkuntza eta LGBTQI+ emakumeen eta pertsonen profesionalizazioa sustatzea da asmoa, kontzertuen, Euroeskualdeko soinu-maparen, mintegien eta konposizio-campusaren bidez.	Diru-Laguntza 27.227€ Aurrekontua guztira 59.905€
ANTZERKIA	OIHANA	Itzuli <i>Bayonne, NoA</i> Atx Teatroa <i>Bilbo, Euskadi</i> El Punto Gunea <i>Pamplona, Nafarroa</i>	Oihana euskarazko zientzia-fikziozko antzerki eta dantza ikuskizun bat da, identitatearen eraiki eta transmititzeko gaiak aztertzen dituen. Obra azpтитulatu egingo da.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 66.900€

PROIEKTUA	KIDEAK	LABURPENA	DIRU-LAGUNTZA / AURREKONTUA GUZTIRA
ELEANIZTASUNA			
BEHA	Hekimen elkarte <i>Andoain, Consortium</i> EHU-NOR Ikerketa Taldea <i>Leioa, Euskadi</i>	Euskarazko hedabideen audientzia digitala neurtzeko sistema eguneratu bat sortzea.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 60.000€
HEHGAN	UPV/EHU <i>Tolosa, Euskadi</i> IKER <i>Bayonne, NoA</i> GUZTIOK <i>Bera, Nafarroa</i>	Logopedek euskarazko hizkuntza ebaluatzeko tresnetan duten hutsunea bete nahi du proiektuak, 2016az geroztik garatutako HIPIE-HIGA gailuan sakonduz. Gailu horrek hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurrengandik jasotako erantzunak prozesatzeko aukera ematen du, euskararen euskalki-desberdintasunak kontuan hartuta.	Diru-Laguntza 3.909€ Aurrekontua guztira 8.600€
HERALDABIDE	Hamaika telebista Nafarroar ikusentzunezkoak <i>Pamplona, Nafarroa</i> Euskadikal Editorea SL <i>Andoain, Euskadi</i> Antxeta Irratia <i>Hendaye, NoA</i> Aldudarrak Bideo SCIC <i>Bidarray, NoA</i>	Euskal komunikazio-erakundeen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea, hedabideak eraldatzen lagunduko duten teknologiak garatuz (besteak beste, azpтитulu automatikoen sistemak), eta baita horiek integratuko dituen plataforma berritzaile bat ere.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 82.000€
ONDARE BIDEA	Lo Congrès permanent de la lenga occitana <i>Billère, NoA</i> Elhuyar fundazioa <i>Usurbil, Euskadi</i> Euskadikokultur Fundazioa <i>Pamplona, Nafarroa</i>	Mintzamenaren teknologietan adimen artifizialaren aurrerapenak baliatzea okzitanierazko bideo-transkriptore automatiko bat garatzeko.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 82.000€
KIROLA			
¡ARRIBA!	Be on Sports SL <i>Irun, Euskadi</i> Office Municipal des Sports Hendaye <i>Hendaye, NoA</i> Atxaspi SL <i>Lesaka, Nafarroa</i>	Eskuragarri dauden mugaz gaindiko kirol-jarduera guztiak modu egituratuan biltzea eta web plataforma bat sortuz eskuragarri jartzea da helburua.	Diru-Laguntza 25.500€ Aurrekontua guztira 245.000€
EUSKAL PILOTA METODOLOGIA ETA TEKNOLOGIA	Euskadiko Euskadikal Pilota Federakuntza <i>Abadiño, Euskadi</i> Nafarroako Pilota Federakuntza <i>Pamplona, Nafarroa</i> Iparraldeko Pilota Batzordea <i>Hasparren, NoA</i>	Teknikarien prestakuntza-maila baxua eta euskal pilotaren kudeaketa metodologikorako beharrezkoak diren tresna teknologiko berritzaileak gainditu nahi ditu, lau aplikazio informatiko garatuz.	Diru-Laguntza 25.500€ Aurrekontua guztira 111.620€
BERDINRUGBY	Agintzari GEK <i>Bilbo, Euskadi</i> EVAH - Espace de vie pour les adultes handicapés <i>St-Jean-de-Luz, NoA</i> Zakan <i>Pamplona, Nafarroa</i> Zabalduz Koop <i>Hernani, Euskadi</i>	Topaketen eta bisiten agenda bat non, errugbiaren balioen bidez, «Egoera arruntetan» eta «egoera sozialki baztertuetan» dauden gazteek (desgaitasuna duten pertsonak barne) kirol- eta kultura-uneak partekatuko dituzten.	Diru-Laguntza 23.634€ Aurrekontua guztira 52.000€

PROIEKTUA	KIDEAK	LABURPENA	DIRU-LAGUNTZA / AURREKONTUA GUZTIRA
HEZKUNTZA-GAZTERIA			
AKUAKIN	Kardala LHII <i>Mutriku, Euskadi</i> Lycée Agricole St-Christophe <i>St Pée sur Nivelle, NoA</i> Cederna-Garalur <i>Ansoain, Nafarroa</i>	Bazkide diren eskoletako ikasleen hiru bisita antolatzea du helburu hiru lurraldeetan, tokiko akuikultura-sektoreari buruzko ezagutza garatzeko, teoria eta praktika uztartzen dituzten jardueren bidez.	Diru-Laguntza 6.727€ Aurrekontua guztira 14.800€
MIÑAN : 11 IXTORIO	Jakinola <i>Bayonne, NoA</i> Aurten Bai <i>Amorebieta-Extano, Euskadi</i> Guia ikastegia <i>Pamplona, Nafarroa</i>	Euskara ikasteko webgune interaktiboa, doakoa eta sarbide librekoa sortzea. Ikaskuntza Amets Arzallusen literatur lan batean oinarrituko da.	Diru-Laguntza 12.974€ Aurrekontua guztira 28.570€
MUSIKAREN GILTZAK	GiLTzaera <i>Makea, NoA</i> Itsaso Arrieta Goiri <i>Lezama, Euskadi</i> Asisko Urmeneta Otsoa <i>Pamplona, Nafarroa</i> Mikel Zarate Yurrebaso <i>Lezama, Euskadi</i>	Solfeorako musika-teoriako hezkuntza-tresna bat sortzea, dibertigarria, modernoa eta berritzailea, euskal kulturaren ondare aberatsean oinarritua. Entregagarria Asisko Urmenetaren marrazkiekin ilustratuko da.	Diru-Laguntza 13.635€ Aurrekontua guztira 30.000€
STEAMNET	Elhuyar Fundazioa <i>Usurbil, Euskadi</i> Planetario de Pamplona <i>Pamplona, Nafarroa</i> Xalbador Kolegioa <i>Cambo-les-Bains, NoA</i>	Zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten mugaz gaindiko hiru azoka zientifiko antolatzea. Azoka hauek ikasle gazteei zuzenduta egongo dira.	Diru-Laguntza 25.000€ Aurrekontua guztira 231.966€
EKIONTZI	Albaola elkartea <i>Pasai San Pedro, Euskadi</i> Centro Integrado FP Donibane <i>Pamplona, Nafarroa</i> Fédération Compagnonnique <i>Anglet, NoA</i>	Donibaneko eta FCMB Angeluko ikasleek 35 lagunentzako edukiera duen egurrezko eta propulzio elektrikoko katamaran baten kabina diseinatzea, bisitariak Faktoriara eramateko.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 60.000€
TXAC TooboX Academy	GAIA <i>Donostia, Euskadi</i> Azaroa Films <i>Gernika-Lumo, Euskadi</i> Nafarroako ikastolen elkartea <i>Pamplona, Nafarroa</i> Aldudarrak bideo <i>Bidarrai, NoA</i>	Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikasleei hizkuntza informatikoa irakasteko lineako plataforma.	Diru-Laguntza 27.270€ Aurrekontua guztira 60.000€
HURBILKETAREN BIDEAN	Maison de l'Europe de Lot-et-Garonne <i>Agen, NoA</i> Kiribil sare <i>Bilbo, Euskadi</i> Kaebnai <i>Donostia, Euskadi</i> Arterra Bizimodu <i>Artieda, Nafarroa</i>	Euroeskualdeko 3 hizkuntzetan gida pedagogiko komun bat egitea, aukera gutxien dituzten 18 eta 30 urte bitarteko Euroeskualdeko gazteen mugikortasunerako oztopoak gainditzeko.	Diru-Laguntza 24.163€ Aurrekontua guztira 53.165€

Ezagutzaren ekonomia proiektu-deialdia

Abian diren proiektuak

2021ean mugaz gaindiko harreman ekonomikoak eta profesionalak sustatzea izan da Euroeskualdearen lehentasun nagusietako bat.

Horretarako hainbat berrikuntza-proiektu garatu dira Euroeskualdeko estrategian identifikatutako funtsezko 6 sektoreetan:

- Nekazaritza eta elikagaien industria;
- Energia berriztagarriak;
- Eraikuntza jasangarria eta zura;
- Osasuna/Bio-osasuna;
- Aeroespaziala, fabrikazio aurreratua;
- Itsasoko eta kostaldeko baliabideak.

LLETak aurreko urteetan hautatutako lankidetza estrategikoen jarraipenean eta aplikazioan jarri ditu indarrak.

Nekazaritza/Elikagaien industria

Danegaz proiektuak hainbat ekintza garatu ditu Euroeskualdeko BJDekin gaztaren balio-kateko eragileen sare bat sortzeko (bazkideak eta alderdi interesdunak). Bisitak antolatzea, adituekin tailerrak egitea (marketina, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua, elikagaietan belarra, esnearen kalitatea), eta lurralde guztietan turismoa sustatzeko tresna eta proiektu komunak diseinatzea izan dira ekintza nagusiak JDB gaztaren ekoizpena erdigunean jarrita.




Nekazaritzako elikagaien enpresen eraldaketa digitalari laguntzea helburu duen **Agrotic Hub** proiektuak eraldaketa digitalaren eta jasangarritasunaren arloko sektorearen lehen diagnostikoa egin du.



Energia berriztagarriak

Hidro Ttipi proiektuak bertan behera utzitako erroten, presen eta egitura hidraulikoen mapa interaktibo bat garatu du, horiek berritzeko aukera aztertzeko.

Renovables proiektuak Bizkaiko Golkoan ekonomia urdina sustatzeko ahaleginetan jarraitzen du tailerrak, web mintegiak, udako eskolak eta bisita teknikoak antolatuz.



Eraikuntza jasangarria/Zura

Euroeskualde osoko **baso mapa** bat egin da, lurzoruaren erabilera bat eta baso-azalerari buruzko mapa eta estatistikak barne hartzen dituena.



Gainera, **Erakusbidea** proiektuak aurrez aurreko eta urrutiko ekitaldiak antolatu ditu, zurekin eta beste material natural batzuekin eginiko eraikuntza jasangarria sustatzeko.

WEBINAR
ONLINE

8
Febrero

11:00 | 12:20
h.

Madera y materiales naturales :
una opción para el
presente y futuro
de la construcción
sostenible

MADERA Y BIOMATERIALES EN EDIFICIOS
NO RESIDENCIALES

* Webinar en francés, euzkera y castellano con traducción simultánea.

Osasuna/Bio-osasuna

Lipomodelaje proiektuak redoi motako drainatze-flasko bat diseinatu du, egungo lipomodelazio-sistemaren eragozpenak konpontzeko eta gero eta ohikoagoa den bularra berreraikitze teknika hobetzeko.

Bestalde, **Vasadin** proiektuak adineko pertsonei osasun-arreta emateko eredu bat definitzen du, balioa sortzeko eta benetako beharrei erantzuteko.

Bilebank proiektuko bazkideek biobanku komun eta funtzional bat martxan jartzen jarraitzen dute biopsia likidoko eta medikuntza pertsonalizatuko estrategietan erabiltzeko eskuragarri dauden giza behazunaren laginetarako, gaixotasun hepatobiliopankreatikoen ikerketa sustatzeko helburuarekin. Informazio guztia www.bilebank.org webgunean dago eskuragarri.



Aeronautika/Fabrikazio aurreratua

Validantennes proiektuak ere aurrera dirau. Bereziki SLM satelite txikien aplikazio espazialearako antenak fabrikatzeko, metalen fabrikazio gehigarriko tekniken egokitasuna egiaztatzea helburu duen egitasmo honek, bi kate erradiatzaile diseinatzeko eta fabrikatzeko lan egiten du, bata ohiko fabrikazio bidez eta bestea SLM bidez.



Txipirentsi proiektuak soluzio robotiko baten garapena amaitu du, konposite-piezen mekanizazio garbia, segurua eta kalitatezkoa eskaintzen duena, industria aeroespaziala merkatu nagusitzat hartuta.

Hautatutako proiektu berriak

2021ean, LLETak sei lankidetzat berri hautatu ditu 2021eko «Ezagutzaren ekonomia» proiektu-deialdiaren esparruan.

Hautatutako 6 proiektuen banaketa:

- Aeronautika eta Fabrikazio aurreratuen sektorean 3 proiektu;
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industriaren sektorean proiektu bat;
- Osasuna/Bio-osasunaren sektorean 2 proiektu.

PROIEKTUA	BAZKIDEAK	LABURPENA	DIRU-LAGUNTZA / AURREKONTUA GUZTIRA
AERONAUTIKA/FABRIKAZIO AURRERATUA			
COGNIROB	Aldakin Automation S.L Nafarroa ESTIA NoA Dassault Aviation NoA Ideko S. COOP Euskadi	Ekimen honen helburua konpositeen mekanizazio zehatzerako soluzio robotiko errentagarri, malgu, eskalagarri eta birkonfiguragarria garatzea da, Txipirentsi 1 eta 2 proiektuetan garatutako xurgatze-sistemaz gain, horma fineko piezak mekanizatze soluzioak barne hartzen dituena, mekanizazioan sortutako arazo dinamikoak (chatter) ezabatzen direla bermatzeko.	Diru-Laguntza 74.250€ Aurrekontua guztira 150.040€
ADIBETON	Materialight Nafarroa OriDev NoA Mugaroa Nafarroa Tecnalia Euskadi	Proiektu honen helburua aurrez fabrikatutako hormigoizko piezei funtzionaltasun elektronikoa emateko soluzio bat garatzea da. Zehazki, proiektuak hormigoizko pieza aurrefabrikatu bat diseinatzeko prozesuan funtzio desberdinak integratzea ahalbideratuko duen teknologia garatzea (sentsoreak, eragingailuak jartzea, argiztapena, kapazitate-karga, ukipen-eremuak, etab.) eta, diseinu horretatik abiatuta, urrutitik azter daitezkeen datuak elikatu, konektatu eta bidaltzeko gai izango den zirkuitu malgu bat sortzea proposatzen du.	Diru-Laguntza 60.922€ Aurrekontua guztira 122.750€
LNA250-RUN3	CEIT Euskadi UPNA Nafarroa ESTIA Addimadour NoA LISI Aerospace Additive Manufacturing NoA	Ekimen honek, fabrikazio gehigarriaren bidez, zarata baxuko amplifikadore baten (LMA) sentikortasuna hobetu nahi du. Amplifikadore horrek oso maila baxuko seinaleak handitzen ditu, eta eremu askotan (5G eta 6G, osasun-sektorea, automozioa) aplikatu daitezke.	Diru-Laguntza 56.387,33€ Aurrekontua guztira 113.921,80€
NEKAZARITZA/NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA			
RECYCLE-POLYWASTE	Nafarroako Unibertsitate Publikoa Nafarroa UPV / EHU Euskadi CNRS NoA	Proiektuak nekazaritzak eta abeltzaintzak sortutako hondakin plastikoen titanio dioxidoarekin dopatutako mikro-nanozuntzen mintz polimerikoak berreskuratzea eta birziklatzea izango du helburu, elektrospinning teknologia aurreratua erabiliz, azken erabilera posible ugari izan ditzakeen eta balio erantsi handiko produktu bat lortzeko.	Diru-Laguntza 73.576,80€ Aurrekontua guztira 149.836,10€
OSASUNA/BIO-OSASUNA			
XSLEEVE	Deflastrat SL Euskadi Vidorreta Design Nafarroa Olaberria NoA Navarra Biomed Nafarroa	Proiektu honek zistoskopia eta endoskopiaentzako erabili eta botatzeko zorro bat garatu nahi du, gernu-traktuaren prozeduretan segurtasuna areagotzeko eta tresnaren kutsadura saihesteko.	Diru-Laguntza 73.500€ Aurrekontua guztira 150.080€
ECLICARE	BCMaterials Euskadi Université de Bordeaux NoA Nafarroako Unibertsitate Publikoa Nafarroa	Lankidetzat hau adinekoentzako diagnostiko pertsonalizatua egiteko produktu eta zerbitzu berriak garatzera bideratuta dago, informazioaren teknologietan oinarrituta, hala nola adimen artifizialean, Big Data eta komunikazioetan. Proiektuak telefono adimendun ECLn oinarritutako diagnostiko molekularreko probetarako plataforma instrumental gisa duten gaitasuna aztertuko du.	Diru-Laguntza 60.306,26€ Aurrekontua guztira 123.184,74€

Lankidetza estrategikoak

Abian diren lankidetzak

Planeta Dantzan

2021ean zehar, irakaskuntza ertaineko ikastetxeetako gelak itxi behar izateak aldaketak eragin ditu Planeta Dantzan lankidetzan. Hala ere, ekitaldi horretarako aurreikusitako *Fossile* hezkuntza programa berritu egin da 2021-2022 ikasturterako.

Donostiako Victoria Eugenia Antzokian egindako hiru eskola-emanaldiei esker 1.000 ikasle inguruk gozatu ahal izan zuten Malandain Ballet Biarritzeko Martin Harriague koreografoaren ikuskizunaz. Testuinguru eta koreografia tailerrek ikastetxeetan jarraitzen dute.

Erregai fosilek gizartean duten papera zalantzan jartzea da helburua, eta, baita gazteak ingurumen-arazo larrienetako baten inguruan sentsibilizatzea ere. Horrela, programak sentsibilizazio-tresna bihurtu eta herritar konprometituen sortzen parte hartu nahi du.



Euskal Errugbia

EUSKAL RUGBY lankidetza estrategikoari esker errugbi federazioek kirol-trukeetan parte har dezakete, eta kirolaren eta zehatzago, errugbiaren arloko jardunbiderik onenak parteka ditzakete.

Osasun-murritzketek txapelketak egitea ia ezinezkoa egiten duten arren, antolatzaileek EuroBasque Rugby Challengeko emakumezkoen sekzioa antolatu ahal izan zuten. Finala abenduan jokatu zen eta La Unicako jokalaria nafarrak izan ziren txapelak.



Aquitaine.eus

Euroeskualdeko euskal lurraldeetako artisten Akitania Berriko mugikortasuna du helburu Aquitaine.eus lankidetza estrategikoak. Pandemiarekin lotutako murritzketek kultur sektorea bereziki kaltetu dutenez, mugikortasunean oinarritutako proiektu honen jarduerak ere moldatu egin behar izan dira.

Hala ere, izan dira aipatzeko moduko gertakizun batzuk, hala nola, Palmerreko Rocher-en (Cenon, Bodeletik gertu) antolaturiko *Euskal Kulturaren Gauda*, Arroxelako *Sunny Side of the Doc* jaialdian ekoizleek izandako presentzia, euskal dokumentalen gida bat egitea, konpainiek Libourneko *Fest'Arts* jaialdian izandako presentzia, *Euskal zinemagileen belaunaldiak liburuaren aurkezpena Bordelen*, Lezaynen (Poitou-Charentes) egoitza artistikoak babestu izana eta Biarritzeko *Maitaldia* ekitaldian proiektua aurkeztu izana.

Kompar

Kompar lankidetza estrategikoak gizarte-laneko prestakuntza-aukerak zabaltea du helburu, etorkizunean mugaz gaindiko eremuan, sektore horretan jardungo duten etorkizuneko profesionalentzat.

Plataforma honen lana 3 lantaldetan banatzen da:

- Hezitzaile irakaslea: gizarteratzea.
- Lehen haurtzaroko hezitzailea.
- Gizarte- eta hezkuntza-laguntza.

Hainbat ekintza garatu ditu:

- Mugaren bi aldeetako kualifikazioak identifikatu eta baliozkotzeko konpetentzia-esparruak alderatzea ;
- Euroeskualdean ikasleen mugikortasuna sustatzea, hizkuntza eta pedagogia gaitasunetan oinarrituta. 2021ean, 150 ikaslek lan egin zuten KOMPAR proiektuaren 5. ediziorako, eremu sozial eta mediko-sozialean (giza baliabideak, kartografia, web orria...) egon litezkeen enplegu-kokapenak eta egitura profesionalak identifikatzeko ;
- Mugaz gaindiko elkartrukeak eta lankidetza areagotzea, hezkuntza-taldeen baterako prestakuntza sustatuz.

Horrela, sare honetako 11 zentroek kalitate handiagoko prestakuntza eskaini nahi dute, eta era berean, osasun eta gizarte prestakuntzaren gero eta eskaera handiagoei erantzun.



Klusteuro

Klusteuro POCTEFA COMPETITIV'EKO Europako proiektuaren esparruan sorturiko lankidetza estrategikoa da, Euroeskualdeko hiru kluster suspertzeko diseinatua.

Hiru lurraldeetako, hots, Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroako 36 kide ditu, Euroeskualdeko hiru klusterretan banatuta eta zeharkako lankidetzan dihardutenak:

- ADDITIVALLEY - fabrikazio gehigarria.
- BIG DATIA - big data eta adimen artifiziala.
- INNOVMEDICA - neurriera egindako gailu medikoak.

2021ean, lankidetza publiko-pribatu honek jarraian ageri diren jarduerak hauek antolatu ditu:

- Kide guztien arteko bilera kolektiboak (albisteak, inbertsioak, proiektu berriak, talde berriak). Helburua: elkar hobeto ezagutzea, lankidetzak posible bat ezartzeko ;
- Aurrez aurreko bilerak, enpresa zein teknologikoa zentroetara bisitak eginez, hiru lurraldeetan ;
- Bilerak bezero potentzialekin, haien beharrak eta epe ertain eta luzerako proiektuak ezagutzeko ;
- Adituekin bilerak egitea, ezagutza sortzeko.

Horrez gain, Euroeskualdeko klusterrei eskainitako webgune bat jarri da abian: www.klusteuro.eu. Hemendik aurrera, lurraldeko eragileek edozein unetan jarrai ditzakete klusterrekin lotutako albiste guztiak, ordenagailutik edo mugikorretik.



Euroeskualdeko merkataritza

Lankidetza estrategiko hau hiru lurraldeetako merkataritza-ganberek zuzentzen dute. Euroeskualdeko merkataritzaren garapenean oinarritutako ekintzak sustatzea da helburua. Bazkideek 45 ETE-Industria txiki eta ertaini lagundu diete mugaz gaindiko arazoetan (azpikontratistak, zerbitzu-hornitzaileak, bezeroak, banatzaileak, bazkideak eta abar bilatzea).

Hala, Merkataritza Ganberek honako zerbitzu hauek eskaini dizkiete sektore ekonomiko guztietako enpresei:

- Enpresaren arazoen azterketa ;
- Merkataritza Ganberek gomendatutako ekintzak bilduko dituen ibilbide-orri bat, mugaz gaindiko eremuaren ezagutza ekonomikoan eta metatutako esperientzian oinarrituta ;
- Laguntza, batera hautatutako hainbat ekintzatan.

Sasi Ardi

Sasi Ardi lankidetza estrategikoaren bidez, mugaz gaindiko sektore bat egituratzen eta garatzen laguntzen du Euroeskualdeak, ardi arraza hori garatzeko. Lankidetza honek hiru lurraldeetako abeltzainen arteko benetako lankidetza ahalbidetu beharko luke. 2021ean, bazkideek gizentze-tailerrak sortu dituzte. Tailer esperimental horiek gizentze-prozesu fidagarri bat definitzea, praktikak normalizatzea eta akabera-kostuak kalkulatzeko ahalbidetu dute. Horrez gain, gizentze-tailerretako produktuen kalitatea neurtzeko sukaldaritzako dastatzeak ere antolatu dira.



Lankidetza berriak

Euskarabentura

Euskarabentura proiektuak lankidetza estrategiko bat sinatu du 2021ean, «Euroeskualdeko hiritartasuna» ardatzerako. Gaztetasuna, ondarea, kirola eta eleaniztasuna uztartuz, 120 gaztek hilabete batez Euroeskualdeko lurralde euskaldunak ezagutzeko aukera izango dute.

2018an hasi zen proiektua, euskararen erabilera sustatu, gazte euskaldunen sare bat sortu, balio positiboak transmititu eta gazteen hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzea helburu. Euroeskualdeko hiru lurraldeetatik zein diasporatik etorritako nerabeak ingurune euskaldun batean murgiltzen dira eta Euroeskualdeko kultura, ingurumen eta gizarte-aberastasuna deskubritzen dute.

Lankidetza bidez oso-osorik ordaindutako murgiltze horrek aisialdiko jarduerak hizkuntzaren praktikarekin konbinatzeko eta etorkizuneko bide berriak aurkitzeko aukera ematen die.



Osasun-egoerak kaltetu egin du proiektuaren funtzionamendu egokia. 2021eko edizioa aldatu egin zen osasun-mugei erantzuteko: bi asteke bi egonaldi ez-ibiltari antolatu ziren, eta egonaldi bakoitzean 60 gazte egon ziren. Euroeskualdeko talde teknikoak gazteak ezagutu eta mugaz gaindiko ingurua aurkeztu ahal izan zien *Euroeskualdea deskubritu* jolasaren bidez.

Euroeskualdeko beka

2021ean inflexio-puntu bat ezarri da Euroeskualdeko unibertsitate mugikortasuneko bekarentzat.

Beka hau Euroeskualdeak 2015etik sustatutako plana da, eta 2021ean barneratu da haren kudeaketa.

Euroeskualdeko hiru lurralde kideetako batean (Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroa) bizi diren eta horietako beste baterako mugikortasuna eskatu nahi duten ikasle eta doktoregaiei diru-laguntzak ematean datza.

Euroeskualdeko kide diren lurraldeen arteko mugikortasuna sustatzea du helburu, Euroeskualde barruko sentimendua indartzeko, hurbiltasuna nazioartekotzeko filosofia batean. Bekari esker, ikasleek eta doktoregaiek hobeto ezagutzen dute mugaz gaindiko eremua, beren karrera aberasten duen eta kulturarteko gaitasunak eskuratzeko aukera ematen dien esperientzia akademikoari esker.



Beka honek ikasle eta doktoregaiei mugaz gaindiko eremua hobeto ezagutzeko aukera ematen die, eta euren ibilbide akademikoa aberasteaz gain, kultura arteko gaitasunak eurenganatzeko baimentzen die.

Euroeskualdeko Beka bi planek osatzen dute, batean konbinatuta: bat graduiko eta masterreko ikasleei zuzenduta dago, eta 300 euroko zenbatekoa izango du hilean, bi epetan ordainduta. Bestea, berriz, doktoregoko ikasleentzat da bereziki, hauek egonaldi laburragoak izaten dituztelarik.

Euroeskualdeko bekako ikasleen atalak 61 gazteren mugikortasuna ahalbidetu zuen eta 160 hilabete-sari banatu zituen.



2

Abian diren europar proiektuak


TRANSFERMUGA-RREKIN

POCTEFA TRANSFERMUGA-RREKIN proiektuak 2021ean gauzatu ditu bertako ekintza gehienak. Proiektua EGEF Eskualde Garapenerako Europako Funtsak %65ean finantzatu du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).

Besteak beste, proiektu-buru den Euroeskualdeak bidaiariari informazioa emateko **transfermuga.eu** ataria berritu du, egitura sinplifikatu eta intuitiboago batekin. Mugaz bestaldera zein beren lurraldearen barruan ibili nahi duten bidaiariek hobeto planifika ditzakete beren joan-etorriak, **bidaiaria-planifikatzaile berriaren** laguntzarekin. Tresna honek Euroeskualde osoko garraio publikoari buruzko datu teorikoak eskaintzen ditu, baita bestelako datuak ere, hala nola, hiri jakin batzuetako tarifak.

Halaber, kode irekiko gailu berriaren hedapenari esker, Transfermuga ibilbideen kalkulagailua **mugikorreko aplikazio** batean garatu ahal izan da, bidaiariak ibilbidean zehar duen esperientzia zabaltzea da azken honen helburua.

Horrez gain, mugaz gaingiko eskaintza multimodal integratuari eta mugaz gaingiko trenbide-loturaren gobernantzari buruzko ikerketek nabarmen egin dute aurrera. Lehenengo emaitzek Donostia-Baiona linean, karga-hausturarik **gabeko tren-zerbitzua handitu** daitekeela adierazten dute, batez ere UIC trenbidearen zabalera estandarra mugaren hegoaldera iristen denean 2024-2025 urteetan.



Interreg
POCTEFA
TRANSFERMUGA-RREKIN



Hendaiako **gune multimodalari dagokionez**, geltoki multimodalaren, aparkalekuaren eta bidegorriaren arteko loturaren garapenak lehen urtea izan du. Urtearen lehen erdian osatu beharko liratekeen zenbait lan amaitu ostean, Hendaiako espazio multimodala 2022an inauguratuko da ofizialki.

Komunikazioari dagokionez, proiektuko kideek hainbat **forotan parte hartu** dute garatutako ekintzen berri emateko. 2021ean, Euroeskualdeak bi web mintegitan parte hartu du: bata, mugaz gaingiko trenbide-konexioei buruzkoa, Ecodesek eta Eco-Unionek antolatua, eta bestea, Parisko Autonomy azokaren esparruan antolatua. Proiektua Connecting Europe Express eta urriko NAVARREFA kongresuan ere egon da, besteak beste.



COMPET'Plus

Euroeskualdeak ETEen enpresa lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko asmoa duen, POCTEFA COMPET'Plus proiektuan parte hartzen du. Egitasmoa 2020tik 2022ra bitartekoa da eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzan du %65, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bidez.

2021ean, proiektuak hainbat ekintza garatu dira ETEak, start-upak eta balio erantsi handiko teknologia zentro liderak identifikatzeko, hiru lurraldeetan hautatutako lau eremu hauetan:

- Elektromugikortasuna, elektrikoa zein hidrogenozkoa;
- Hibridazio energetikoa;
